



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**

◆
EPAILEA,
EHUKO
ZUZENBIDE
IRAKASLEA

Koherentzia politikoa eta sinesgarritasuna

INGURU politikoari begiratzerakoan deigarria egiten zait iritziak, argudioak eta helburuak aldatzeko politikariek duten trebetasuna, eta aldaketa edo itzulipurdi horiek jasateko gizarreak daukan gaitasuna.

Azkeneko hilabeteotan ere koherentzia politikoa faltan antzeman dut hainbat kasutan; bestetan, koherentzia garbia ikusi dut. Koherentzia norberaren iritziekiko edo ibilbidearekiko eta gizartearen oinarriekiko.

Gertaera batzuk azalduko ditut:

López lehendakariak agindu du PPren Espainiako Gobernuak –eta Gorteek– erabakitako murrizketak ez dituela hemen beteko, baldin eta legez ez badago behartuta, ongizatea eta autogobernua defendatu nahi dituelako. Ongi da, bai; helburu duinak eta ezinbestekoak edozein gobernarirentzat. Baina, tamalez, Lópezi sinesgarritasuna falta zaio, gutxieneko koherentzia galdu duelako. Bestela, nola ulertu 2010. eta 2011. urteetan PSOEn Espai-

Sánchez Gordillok eta beste kide batzuek supermerkatuetan janaria ostu eta sekulako eskandalua sortu da. Ez dut nik defendatuko lapurreta eta gutxiago biolentzia, baina “eraso” horiek guztiz koherenteak iruditu zaizkit

niako Gobernuak –eta Gorteek– erabakitako murrizketak Euskadiko Erkidego Autonomoan zehazki eta zorrozki aplikatu izana? Nola ulertu orain Eusko Jaurlaritza erabiltzen ari den argudioak –autogobernuaren, ongizatearen eta negoziazio kolektiboaren defentsa...– orain arte kontuan ez izana eta juridikoki arrazoi guztiz kontrakoak erabili izana? Non daude lotura, oinarria, interes orokorra eta herritarren defentsa? Alderdiari zor dion fidelitasunak eta errentagarritasun politikoak eman diote kasu honetan “koherentzia” lehendakariari.

Andaluziako gertaerek ere zer pentsatu eman dute. Juan Manuel Sánchez Gordi-

llok eta beste kide batzuek supermerkatu batzuetan janaria ostu eta sekulako eskandalua sortu da. Ez dut nik defendatuko lapurreta –niretzat, gainera, hori ez da lapurreta– eta gutxiago biolentzia, baina “eraso” horiek guztiz koherenteak iruditu zaizkit. Koherenteak gizartean gertatzen denarekiko eta herritarrok pairatzen ari garenekiko. Koherenteak, baita ere, herritarren eskubideekiko, funtzio sozialak mugatuko duelako jabetza pribaturako eskubidea, Espainiako Konstituzioak dienez. Beraz, nahiz eta horretarako legeak eta prozedurak behar diren, argi dago herritarren ongizatea jabetza pribatuaren gainetik dagoela. Ekintza horiek, bada, eman den manipulazioaz gain, guztiz koherenteak izan dira eta oinarriko eskubideei buruzko eztabaida soziala eta hausnarketa sakona probokatu dituzte.

Koherentziaz mintzatzekoan datorren urriaren 21eko hauteskundeak ere aipatu nahi nituzke. Aurtengo maiatzaren hasieran galdu zuen López lehendakariak PPren babes eta, beraz, kargura iristeko eduki zuen sostengu bakarra. Une hartan, koherentzia politikoak eskatzen zuen legebiltzarreko beste talderen batekin itun iraunkorra lortzea edota hauteskundeak deitzea. Lehendakariak ez zuen horrelakorik egin nahi izan eta, azkenik, derrigortuta ikusi omen du bere burua, nahiz eta inork ez dakien zer aldatu den maiatzetik hona.

Baina hauteskundeek beste zeresanik eman dute. Kontua da batzuek aldarrikatzen dutela ETAn mehatxuen ondorioz Euskal Herritik alde egin dutenek botoa hemen eman ahal izatea. Koherentea izango litzateke erbesteratuiei itzultzeko eskubide eraginkorra bermatzea, mota guztietako laguntzak emanaz. Baina botoa hemen eman izateari ez diot inolako koherentziarik aurkitzen, botoa eman behar delako norberaren interesak jokoan dauden esparruan eta, kasu honetan, boto horrek ez du eraginik izango kanpoan bizi direnengan. Egia esan, gauza bera gertatzen da emigratzaileen botoarekin eta, beraz, hau ere birpentsatzea eskatuko nuke. ■

